

# Aurrekontuak

Proiektua

# 2019

Proyecto

# Presupuestos



ADMINISTRAZIO OROKORRA

# 4b

ADMINISTRACIÓN GENERAL

SEKZIOAK

SECCIONES

Enplegua eta Gizarte Politikak  
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza  
Ogasuna eta Ekonomia

04 Empleo y Políticas Sociales  
05 Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda  
06 Hacienda y Economía



# Aurrekontuak

Proiektua

# 2019

Proyecto

# Presupuestos

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA EKONOMIA  
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ECONOMÍA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan  
aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>  
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo  
de la red Bibliotekak del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpa>

Argitaraldia / Edición: 1.a 2018ko urria / 1ª, octubre 2018

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco  
Ogasun eta Ekonomia Saila / Departamento de Hacienda y Economía

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa / Imprime: Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua / Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

## 04tik 06ra bitarteko Sekzioak Secciones 04 a 06

4b Alea  
Tomo 4b

### Aurkibidea / Índice :

-	04 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK.....	1
	04 EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak .....	3
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen Egoera-orria .....	77
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	3111 Enplegua eta Gizarte Polit. Egitura eta Laguntza .....	79
	<i>Estructura y Apoyo de Empleo y Políticas Sociales</i>	
	3121 Gizarteratzea.....	85
	<i>Inclusión Social</i>	
	3122 Inmigrazioa.....	87
	<i>Inmigración</i>	
	3123 Gizarte Zerbitzuak.....	93
	<i>Servicios Sociales</i>	
	3124 Familia eta Komunitate Politika.....	103
	<i>Política Familiar y Comunitaria</i>	
	3211 Enplegua.....	109
	<i>Empleo</i>	
	3222 Gazteria .....	113
	<i>Juventud</i>	
	3231 Prestakuntza.....	119
	<i>Formación</i>	
-	Diru-sarrerren Egoera-orria.....	121
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	3111 Enplegua eta Gizarte Polit. Egitura eta Laguntza .....	123
	<i>Estructura y Apoyo de Empleo y Políticas Sociales</i>	
	3123 Gizarte Zerbitzuak.....	125
	<i>Servicios Sociales</i>	
	3124 Familia eta Komunitate Politika.....	127
	<i>Política Familiar y Comunitaria</i>	
	3222 Gazteria .....	129
	<i>Juventud</i>	
-	Gastuen Laburpenak .....	131
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Diru-sarrerren Laburpenak .....	149
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
-	05 INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA .....	153
	05 MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak .....	155
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen Egoera-orria .....	231
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	4312 Etxebizitza.....	233
	<i>Vivienda</i>	
	4313 Lurralde Antolamendua.....	249
	<i>Ordenación Territorial</i>	
	4420 Ingurumena eta Lurralde Pol. Etx.Egitura eta Lag.....	253

	<i>Estructura y Apoyo de Medio Ambiente, P.Ter. Viv.</i>	
4421	Ingurumenaren Babesa .....	257
	<i>Protección del Medio Ambiente</i>	
5121	Uraren Plangintza eta Administrazioa.....	269
	<i>Planificación y Administración Hidráulica</i>	
5414	Berrikuntzarako Funtza .....	271
	<i>Fondo de Innovación</i>	
-	Diru-sarreraren Egoera-orria .....	273
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
4312	Etxebizitza .....	275
	<i>Vivienda</i>	
4420	Ingurumena eta Lurralde Pol. Etx.Egitura eta Lag. ....	277
	<i>Estructura y Apoyo de Medio Ambiente, P.Ter. Viv.</i>	
4421	Ingurumenaren Babesa .....	279
	<i>Protección del Medio Ambiente</i>	
-	Gastuen Laburpenak.....	281
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Diru-sarreraren Laburpenak .....	301
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
-	06 OGASUNA ETA EKONOMIA .....	305
	06 HACIENDA Y ECONOMÍA	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak.....	307
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen Egoera-orria.....	369
	<i>El Estado de Gastos</i>	
5511	Estatistika.....	371
	<i>Estadística</i>	
6110	Ogasuna eta Ekonomia. Egitura eta Laguntza .....	373
	<i>Estructura y Apoyo de Hacienda y Economía</i>	
6111	Ekonomia eta Gastu Publikoa .....	379
	<i>Economía y Gasto Público</i>	
6112	Zerga-politika.....	385
	<i>Política Fiscal</i>	
6114	Ondare eta Kontratazioa .....	391
	<i>Patrimonio y Contratación</i>	
6115	Lehiaren Euskal Agintaritza .....	395
	<i>Autoridad Vasca de la Competencia</i>	
6311	Finantza-Politika.....	397
	<i>Política Financiera</i>	
-	Diru-sarreraren Egoera-orria .....	401
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
6112	Zerga-politika.....	403
	<i>Política Fiscal</i>	
6114	Ondare eta Kontratazioa .....	405
	<i>Patrimonio y Contratación</i>	
6311	Finantza-Politika.....	407
	<i>Política Financiera</i>	
-	Gastuen Laburpenak.....	409
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Diru-sarreraren Laburpenak .....	427
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	



**04 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK**  
**04 EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES**









**Sekzioaren eta Programen Memoriak**  
***Memorias de la Sección y de los Programas***





## **ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK**

### **EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES**

#### **SARRERA**

XI. Legegintzaldiaren erdialdera iritsita, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gobernu-programako helburuen zati handi bat gauzatu edo aurreratuta izanik helduko dio 2019ko ekitaldiari.

Enpleguaren arloan, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren hobekuntza sustatzen ari da, enplegu-sustapenerako baliabide gisa, ongizaterako eta gizarte- eta lurralde-koehesiorako tresna izan dadin, kudeaketa eraginkorra eta efizientearen bidez, kalitatezko enplegua ardatz izanda.

Horretarako, Lanbide eskaintzen duen zerbitzua modernizatzeari heldu zaio, bide bat baino gehiago jorratuta. Horietako bat herritarren arretarako eredia sendotzea da, pertsona jarduketa guztien erdigunean izan dadin. Helburua zerbitzu proaktiboa, hurbila eta pertsonalizatua eskaintzea da, zerbitzura jotzen duen pertsona bakoitzak dituen beharrei erantzuteko.

Lortu nahi den esku-hartze integraleko ereduak zerbitzu globalak eta pertsonalizatuak eskaintzen ditu. Pertsonen lan-munduan sartzea eta jarraitzea errazteko zerbitzuak eskaini nahi zaizkie, eta enpresei, berriz, haien lehiakortasuna hobetzeko eta hazkunderako behar dituzten profesionalak eskuragarri izateko zerbitzuak.

Giza kapitalaren prestakuntza garrantzitsua da, bai maila pertsonalean, bai garapen pertsonal eta profesionalerako elementu gisa, bai eta enpresen garapenerako ere, dituzten erronkei aurre egiteko. Horregatik, trebatutako pertsonetan inbertitzen da, aldaketa teknologikoei egokitze-gaitasun handiagoa eta globalizazioarekiko trebetasun eta jarrera irekiagoak baitituzte. Hori euskal enpresen orainerako eta etorkizunerako bermea da. Halaber, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko inbertitzen da. Zenbat eta lehiakortasun handiagoa izan, orduan eta egonkortasun eta berme handiagoak izango ditu euskal langileen enpleguak. Euskadik ongien prestatutako gaztedia du, eta haren ahalmen guztia baliatu behar da. Horregatik, enplegurako lanbide-heziketa funtsezkoa da, eta kalitate-, eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideetan oinarrituta egon behar du.

Honako elementu hauetan daude berrikuntza nagusiak: plangintza eta programazio egonkorren bilaketa, eta sistemaren gobernantza, gizarte-eragileen parte-hartzea izanda eta heziketa-erakundeekin lankidetzan arituta.

Halaber, euskal enplegu-sistema antolatzeke lanean ari gara, Euskal Enplegu Sistemari buruzko Legearen eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren proposamenaren bitartez. Helburua euskal enplegu-politiken oinarriak sendotzea da, izaera integral eta zeharkakoa izan ditzaten eta sistema horren gidalerroak egituratu ditzaten.

#### **INTRODUCCIÓN**

En el Ecuador de la XI Legislatura, el Departamento de Empleo y Políticas Sociales afronta el ejercicio 2019 con buena parte de los objetivos del programa de gobierno realizados o avanzados.

En el área de Empleo se impulsa la mejora de Lanbide, Servicio Vasco de Empleo, como una herramienta de promoción de empleo que mediante una gestión eficaz y eficiente, sea un instrumento de bienestar y cohesión social y territorial, centrado en el empleo de calidad.

Para ello se aborda la modernización del servicio que ofrece Lanbide, en diferentes vías, una de ellas es el refuerzo del modelo de atención a la ciudadanía que sitúa a la persona en el centro de las actuaciones. El objetivo es ofrecer un servicio proactivo, cercano y personalizado que responda a las necesidades que cada persona que acude al mismo necesita.

El modelo de intervención integral perseguido ofrece servicios globales e individualizados a las necesidades detectadas para facilitar a las personas, el acceso y el mantenimiento en el mercado laboral y a las empresas, servicios que mejoren su competitividad y disponibilidad de profesionales que necesitan para su crecimiento.

Es importante la formación del capital humano tanto a nivel personal como elemento de desarrollo personal y profesional, así como para el desarrollo de las empresas ante los retos que deben afrontar. Por ello se invierte en personas formadas, con mayor capacidad de adaptación al cambio tecnológico, con aptitudes y actitudes abiertas a la globalización. Esta es una garantía de presente y futuro de las empresas vascas. Asimismo se invierte en la mejora de la competitividad de las empresas. A mayor competitividad, más estabilidad y garantía en el empleo para los y las trabajadoras vascas. Euskadi cuenta con la juventud mejor formada y es preciso aprovechar todo su potencial. Por ello, la formación profesional para el empleo es clave y debe estar basada en criterios de calidad, eficacia y eficiencia.

Las principales novedades están en la búsqueda de una planificación y programación estable, en la gobernanza del sistema con la participación de los agentes sociales y en colaboración con las entidades de formación.

Asimismo se trabaja en ordenar el sistema vasco de empleo mediante la propuesta de la Ley del Sistema de Empleo y del Servicio Vasco de Empleo, con el objetivo de reforzar las bases de unas políticas vascas de empleo dotadas de un carácter integral y transversal y que articulen los principios rectores de dicho sistema.

Helburua enplegu gehiago eta hobe sortzea da, eta konpromiso horren alde egin behar dute erakundeek zein gizarte-elkartek eta enpresek. Eusko Jaurilaritzaren programen helburua prestakuntza eta enplegu-sorrera sustatzea da.

Horretarako, ziurtatzen da emakumea berdintasun-baldintzetan sartuko dela lan-munduan. Une hau baliatu nahi da jauzi handi bat emateko emakumearen aktibazioa lortzeko enpresa- eta industria-arloan, gehien eskatzen eta kalitate hobekoak diren lanbide eta lanetan, batez ere. Enplegua eta soldatak berdintasun-baldintzetan.

Zahartze demografikoaren erronka, trantsizio demografikoa delakoak eragina, gai estrategikoa eta zeharkakoa da gobernu honentzat, geroago aipatuko ditugun beste gizarte-politika batzuekin batera –heriotza- eta ugalkortasun-tasak maila altuetatik maila baxuetara igarotzeko eta prozesu horrek biztanleriaren adin-egituraren duen eraginari deritzo trantsizio demografiko–.

Hori guztia egoera ekonomiko onaren garaian gertatu da. Hain zuzen ere, Euskadiko egoera ekonomikoa, krisi ekonomikoaren ostean, Europako eta nazioarteko onenetakoa da, eta perspektiba onenetakoa dituena.

Zenbait erakunderen aurreikuspenen arabera, Euskadiko BPGd-ak % 2,8 inguruko hazkundea izango du 2018an, eta % 2,3 ingurukoa, berriz, 2019an. Aurreikuspen horiek betetz gero, EAEn langabezia-tasa % 10etik behera jaitsiko litzateke 2018an eta 2019an.

Euskal ekonomiak hazkunde positiboa izaten jarraitzen du, eta adierazleak positiboagoak dira turismo-, industria- eta, batez ere, eraikuntza-sektorean, eta ez dira hain onak kontsumoan edo ondasunen kanpo-sektorean.

Testuinguru horretan, lan-merkatuan langabezia-tasa, behin-behinekotasuna eta dualtasuna murrizteko politiketan eragiten jarduten da. Bestalde, beharrezkoa da laneko kostuen igoerekin batera hobekuntzak izatea produktibitatean, lehiakortasunari eutsi ahal izateko. Gazteen enplegua eta enplegu orokorraren kalitatea hobetzea Sailaren helburu nagusietakoak dira.

Gaur egun, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erronka ekonomiaren susperraldi hori gizartera egokiro ekartzea da.

Hauek dira alderdi garrantzitsuenak:

- Euskal gazteriarri arreta jartzea, lan-merkatuan bidea egiten hastean duintasunez egin dezan eta biztanleriaren erreleboa berma dadin, eta, hartara, urrats positibo bat eman dadin gure gizartearen habeen eraikuntzan.
- Kalitatezko enplegu egonkorra sortzea.
- Euskal gizartearen zahartze demografikoak berarekin dakartzan arazoei aurre egitea, bai eta Euskadiren zein Europar Batasunaren erronka demografikoari ere.
- Gizarte- eta lurralde-kohesioaren alde egitea.

El objetivo es crear más y mejor empleo y ello compromete tanto a las instituciones como a las organizaciones sociales, como a las empresas. Los programas del Gobierno están dirigidos a incentivar la formación y la creación de empleo.

Para ello se asegura la incorporación de la mujer en condiciones de igualdad. Se trata de aprovechar este momento para dar un salto de gigante en la activación de la mujer en el ámbito empresarial e industrial, especialmente en aquellas profesiones y oficios más demandados y de mayor calidad. Empleos en igualdad y salarios en igualdad.

El reto del envejecimiento demográfico, resultado de la llamada transición demográfica, entendida como el paso de niveles altos a bajos de mortalidad y fecundidad y sus efectos sobre la estructura de edad de la población, se presenta como un tema estratégico y transversal de este gobierno junto a otras políticas sociales a las que más adelante se hace referencia.

Todo ello se realiza dentro de la situación económica más favorable y con mejores perspectivas, tanto en Europa como en el panorama internacional, surgida tras la crisis económica.

Según estimaciones previstas por diversas instituciones el PIB del País Vasco se situará en torno a un 2,8% en 2018 y un 2,3% en 2019. De cumplirse estas previsiones, durante 2018 y 2019 la tasa de paro se reduciría por debajo del 10% en la CAPV.

La economía vasca mantiene un crecimiento positivo, con señales más positivas en el sector turístico, industrial y, especialmente, en el de la construcción, y no tanto en el del consumo o el sector exterior de bienes.

En este contexto, se continúa incidiendo en políticas que reduzcan la tasa de paro, la temporalidad y la dualidad en el mercado de trabajo. Además, es necesario que los incrementos de costes laborales vayan acompañados de mejoras en productividad que permitan mantener la competitividad. El empleo juvenil y la mejora de la calidad del empleo general se sitúan entre los grandes objetivos del Departamento.

En la actualidad, el Departamento de Empleo y Políticas Sociales tiene el reto de trasladar adecuadamente la recuperación económica a la sociedad.

Como aspectos más importantes señalaremos los siguientes:

- La necesidad de atención a la Juventud Vasca a la hora de abrirse paso en el mercado laboral de una forma digna y garantizando un relevo poblacional que suponga un positivo paso en la construcción de nuestros pilares sociales.
- La creación de empleo estable y de calidad.
- Afrontar la problemática sobre el envejecimiento demográfico de la sociedad vasca y el reto demográfico tanto del País Vasco como de la Unión Europea.
- Favorecer la cohesión social y territorial.

- Euskadin langabezia-tasa % 10etik behera murriztea, legegintzaldi honen hasieran jarritako helburua, errealitatea izango da hurrengo hilabeteetan, azken urteotako urtetik urterako joera positiboa dela eta.
- Euskadira lan egiteko eta bizitza duina izateko helburuz iritsitako migratzaileen ehunekoak Europar Batasuneko batezbestekoen azpitik dauden arren, Saila ohartu da kolektibo hori kontuan hartzen duten politikak ezarri behar direla Euskadin. Horrek demografia eta ekoizpena hobetzeko balioko du.

Helburu horiek lortze aldera, Sailak beste erakunde batzuen, enpresa-munduaren eta hainbat gizarte-erakunderen lankidetzatza du.

Abagune aproposa da Euskadiren egoera orokorra hobetzeko erreformei ekin eta gizarte-politikak indartzeko, ongizatearen estatuari eusteko erronkei erantzuna emango dien eskenatoki berri bat sortuz.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bi sailburuordetza ditu, eta gai hauetaz arduratzen dira, hurrenez hurren: Enplegua eta Gazteria, eta Gizarte Politikak; sailburuordetza horietako bakoitzak bere zuzendaritza eta erakunde publikoak ditu, herritarren oinarrizko premiei erantzuteko jarduketak bultzatzen dituztenak: enplegua, etxebizitza eta gizarte-politikak.

Bi horiek berebiziko garrantzia dute pertsonen integrazio sozialerako eta euskal gizartearen kohesiorako: enpleguak, baliabide ekonomikoen iturri eta gizarteratzeko tresna gisa, eta gizarte-politikak, pertsonaren duintasunaren euskarri gisa.

Honako hauek dira, beraz, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sail honen funtzioak eta jarduketa-esparruak: enplegu-politika; egoera kalteberenean dauden pertsonen zerbitzu sozialak eta arreta integrala eskaintzea; lana eta familia bateragarri egitea eta laneratzeko gaitasuna eskaintzea hartarako zailtasun handienak dituztenei.

## ENPLEGUA ETA GAZTERIA

Gizarte-elkarrizketa eta ekonomia eta laneko eragileekin akordioa abiapuntu hartuta, Sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak gazteria eta enplegurako politiketan izango duten helburu nagusia izango da baliabide guztiak jartzea enplegu gehiago eta kalitate hobegokoa sortzeko.

- La reducción de la tasa de desempleo en Euskadi por debajo del 10%, objetivo propuesto al inicio de la actual legislatura, y que será realidad en los próximos meses dada la positiva tendencia interanual de los últimos años.

- Aunque los porcentajes de personas migrantes llegadas a Euskadi con objeto de trabajar y desarrollar una vida digna son inferiores a las medias de la Unión Europea, el Departamento es consciente de que han de establecerse nuevas políticas que cuenten con ese colectivo en Euskadi. Ello redundará en una mejora demográfica y productiva.

Para lograr estos objetivos, el Departamento cuenta con la colaboración de otras instituciones, el mundo empresarial y diversas organizaciones sociales.

Es por tanto una ocasión propicia para reforzar las políticas sociales abordando las reformas que mejoren la situación del conjunto de Euskadi para un nuevo escenario que encuentre la respuesta a los retos de sostenimiento del estado del bienestar.

El Departamento de Empleo y Políticas Sociales se articula en dos viceconsejerías que asumen, respectivamente, las materias de Empleo y Juventud, y la de Políticas Sociales que, estructuradas en sus correspondientes direcciones y entidades públicas, promueven actuaciones destinadas a atender necesidades básicas de la ciudadanía; el empleo y las políticas sociales.

Se trata de dos materias cruciales para la integración social de las personas y para el mantenimiento de la cohesión de la sociedad vasca: el empleo, como fuente de recursos económicos e instrumento de participación en sociedad y las políticas sociales, como soporte de la dignidad de las personas.

Corresponden por tanto a este Departamento de Empleo y Políticas Sociales las siguientes funciones y áreas de actuación: la política de empleo, los servicios sociales y la atención integral de personas en situación de mayor vulnerabilidad, la conciliación de la vida laboral y familiar y la capacidad de inclusión laboral de los colectivos con mayores dificultades.

## EMPLEO Y JUVENTUD

En política de Empleo y Juventud, el objetivo general consiste, desde el diálogo social y el acuerdo con los agentes económicos y laborales, en poner todos los recursos del Departamento y de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo al servicio de la creación de más empleo y de mejor calidad.

Enplegua funtsezko tresna da pertsonen garapenerako eta gizartearekiko harremanetarako, eta enplegua lortzea eta enplegu hori kalitatezkoa izatea oso lotuta daude hezkuntza- eta prestakuntza-politikekin. Funtsezkoa da etengabeko ikaskuntzaren alde egitea, hori baita enplegugarritasunaren sustapenerako eta garapen pertsonalerako formularik egokiena. Lan-merkatua gero eta zorrotzago eta aldakorragoa da, eta baldintza horietara egokitzeko bermerik egokiena da profesionalki garatu eta profesionaltasun horri beren bizitza osoan zehar eusteko gai diren pertsona kualifikatuak prestatzea.

Enplegua sortzen duten agente garrantzitsuenak enpresak dira, administrazio publikoak ahaztu gabe. Hain zuzen ere, azken horiei dagokie, alde batetik, enpresa-jarduera bultzatzea (eta, horrenbestez, lanpostu berriak sortzea) errazten duten lege-esparruak eta baldintza publikoak sortzea, eta, beste alde batetik, enplegurako sarbidean aukera-berdintasuna bermatzea, langabezia kroniko bihurtzeko dezaizaten egoerak saihesteko.

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa dokumentu exekutiboa da, batez ere, eta 2020 Enpleguaren Euskal Estrategiaren formulazio estrategikoa zehazten du. Plan horrek gidatuko du enplegu-arloko jarduera, eta planaren koordinazioa, edukien zabalkuntza, jarraipena eta ebaluazioa izango dira Sailaren eginkizun nagusietako batzuk 2019ko ekitaldian.

Eusko Jaurilaritza hainbat neurri garatzen ari da gure gazteek lan-esparruan dituzten erronkei erantzuteko. Neurri horietatik lehen "Hezkuntza-esparrutik lan-arlora igarotzea" ekimena da. Eusko Jaurilaritza, unibertsitateak (EHU/UPV, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea), Lanbide Heziketako zentro publikoen elkarteak eta HETEL gizarte-ekimeneko Lanbide Heziketako zentro pribatu-itunduen elkarteak esparru-akordio bat garatzen ari dira, hezkuntza-esparrutik lan-esparrurako trantsizioa sustatzeko eta ikasle eta tituludunen artean ekintzazailtza bultzatzeko.

Horretarako, bi programa diseinatu dira: "Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa" eta "Gazteen ekintzazailtza". Lau milioi euro bideratu dira horretarako. "Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa"ren helburua da lehen esperientzia praktikorako bidea ematea graduako eta lanbide-heziketako 1.500 ikasleri. Hura martxan jartzean, hiru hilabeteko esperientzia eskuratu ahalko da hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioan, praktiken bitartez.

Gainera, LHko zentroekin eta unibertsitateekin lankidetzan, ekintzazailtzako euskal strategiaren esparruan, eta "Gazteen Ekintzazailtza" programaren bidez, hitzarmenak sinatu dira enpresa-tailerrak garatzeko eta LHko eta unibertsitateko hezkuntza-zentroetan sortutako enpresa berriak sustatzeko.

El empleo es el instrumento fundamental para el desarrollo y la relación de las personas en la sociedad, y el acceso al mismo y su calidad están fuertemente vinculados con las políticas educativas y de formación. Es fundamental apostar por el aprendizaje permanente como fórmula de fomento de la empleabilidad y del desarrollo personal. Contar con personas cualificadas y capacitadas para mantenerse y desarrollarse profesionalmente a lo largo de toda su vida laboral es la mejor garantía para adaptarse mejor a un mercado de trabajo cada vez más exigente y cambiante.

Los principales agentes creadores de empleo son las empresas, sin olvidar a las administraciones públicas. Les corresponde a éstas últimas, por un lado, desarrollar los marcos legales y las condiciones públicas que favorezcan la inversión para impulsar la actividad empresarial y la consiguiente creación de nuevos puestos de trabajo, y por otro, garantizar la igualdad de oportunidades en el acceso al empleo, evitando posibles situaciones de cronificación en el desempleo.

El Plan Estratégico de Empleo 2017-2020 supone un documento eminentemente ejecutivo que concreta la formulación estratégica de la Estrategia Vasca de Empleo 2020. Este Plan, marcará la acción en el área del empleo, y su coordinación, despliegue de contenidos, seguimiento y evaluación serán parte de los principales cometidos del Departamento en el ejercicio 2019.

Desde el Gobierno Vasco se están desarrollando varias medidas en respuesta a los retos a los que se enfrentan la juventud vasca en el ámbito del empleo: la primera de estas medidas es la Iniciativa de transición del mundo educativo juvenil al laboral. El Gobierno Vasco, la EHU/UPV, Universidad de Deusto y Mondragon Unibertsitatea, las asociaciones de centros públicos de Formación Profesional y la asociación de centros privados-concertados de Formación Profesional de iniciativa social HETEL desarrollan un acuerdo marco para impulsar la transición del ámbito educativo al laboral y el emprendimiento entre estudiantes y personas tituladas.

Para ello, se han diseñado dos programas, denominados 'Transición del Mundo Educativo al laboral' y 'Emprendimiento Juvenil'. A ello se han destinado un total de cuatro millones de euros. El denominado 'Transición educativa al mundo laboral' tiene como objetivo facilitar una primera experiencia práctica a 1.500 alumnas y alumnos de estudios de grado y formación profesional. Su puesta en marcha permitirá una experiencia de tres meses de transición del mundo educativo al mundo laboral a través de prácticas.

Además, en colaboración con los centros de Formación Profesional y Universidades, en el marco de la Estrategia Vasca de Emprendimiento, y a través del programa 'Emprendimiento juvenil' se han firmado convenios para el desarrollo de talleres de empresa y promoción de nuevas empresas surgidas en los propios centros educativos de Formación Profesional y universitarios.

Ilido horretako beste neurri bat Gazte Bermearen deialdia da. Deialdi horrek prestakuntza dualaren dinamizazioan eragin nahi du, prestakuntza horrek lotura baitu presentziazko profesionaltasun ziurtagiria lortzeko prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuarekin. Estatuko Gazte Bermearen sisteman alta emanda dauden gazte langabeek zuzenduta dago soilik.

Enpresei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren enplegu eta suspertze ekonomikoaren programak babesten jarraituko du Sailak, eta bereziki, gazteak eta beharrik handiena duten giza-kolektiboak lan-merkatuan txertatzeko politika publikoak babesten, eta lana eta familia uztartzeko neurriak bultzatzen.

Enpleguaren aldeko marko horretan, berebiziko garrantzia dute enplegurako politika aktiboak. Bitartekaritza-funtzio egoki baten bidez, kontratazioa berdintasun-baldintzetan egin dadin bermatu behar da, eta kalitatezko prestakuntza eskaini, produkzio-sektoreen eta pertsonen premiei erantzun ahal izateko.

Gure gizartearen etorkizunari begira, arreta berezia eskaini behar zaio gure gazteak lan-merkatu iritsi daitezen, laneratzearen ikuspuntutik ez ezik, beraien garapen pertsonal eta profesionala ahalbidetuko duen bizi-egonkortasunaren ikuspegitik ere bai. Era berean, emakumeen laneratze integrala bultzatu behar da, lan- eta familia-bizitza bateratzeko neurriak bultzatuko dituen marko baten barruan.

Euskadiko kohesioa sozialerako, beharrezko dira politika publikoak, sozialki egoera okerrean dauden eta enplegutik urrutien dauden kolektiboak Euskadiko enplegu-merkatuan sar daitezen; besteak beste, desgaitasunen bat duten pertsonak, 55 urtetik goragokoak eta iraupen luzeko langabeak. Hori guztia, gainera, dagoeneko daukagun babes sozialerako sistema aurreratuan oinarrituta.

## GIZARTE POLITIKAK

Gizarte-zerbitzuak ongizate-estatuaren laugarren zutabea dira. Osasun-sistema, hezkuntza-sistema eta pentsio-sistema dira beste hiru zutabeak. Hori dela eta, aragintza-esparru bat sortu behar izan da, herritarrek gizarte-eskubide horiek eskuratzeko duten eskubidea bermatzeko. Bestalde, baliabideak pertsonen beharrei erantzun ahal izateko moduan diseinatu behar dira, eta sistemak ekonomikoki bideragarria izan behar du denboran.

Gaur egun, Gizarte Zerbitzuen Legeak, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legeak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legeak eta Familiei laguntzeko Legeak osatzen dute alor honetako lege-esparrua.

Otra medida es la Convocatoria de Garantía Juvenil, una convocatoria que pretende incidir en la dinamización de la formación dual vinculada al contrato para la formación y el aprendizaje asociado a la obtención de un certificado de profesionalidad en modalidad presencial, dirigido con carácter exclusivo a jóvenes en situación de desempleo de alta en el Sistema Estatal de Garantía Juvenil.

En el ámbito de la empresa, el Departamento seguirá apoyando los programas de reactivación económica y del empleo del Gobierno Vasco con especial atención a las políticas públicas que favorezcan la integración en el mercado de trabajo de la juventud y de los colectivos socialmente más desfavorecidos, así como al fomento de medidas que faciliten la conciliación laboral y familiar.

Las políticas activas de empleo son claves en este marco favorecedor del empleo, debiendo garantizar mediante una adecuada función de intermediación la correcta contratación en condiciones de equidad y ofrecer una oferta formativa de calidad que responda a las necesidades de los sectores productivos y de las personas.

El futuro de nuestra sociedad requiere una especial atención al acceso al mercado de trabajo de nuestros jóvenes, en orden a favorecer no sólo su integración sino también para propiciar horizontes de estabilidad vital que posibiliten su desarrollo personal y profesional. Asimismo, es preciso propiciar la máxima integración laboral de las mujeres, todo ello en un marco de fomento de medidas para facilitar la conciliación laboral y familiar.

La cohesión social en Euskadi requiere políticas públicas que favorezcan positivamente la integración en el mercado de trabajo vasco de los colectivos socialmente más desfavorecidos y alejados del empleo, como las personas con discapacidad, mayores de 55 años y las personas desempleadas de larga duración. Todo ello, además, apoyado en el avanzado sistema de protección social con el que contamos.

## POLÍTICAS SOCIALES

Los Servicios Sociales constituyen el cuarto pilar del estado de bienestar junto con el Sistema Sanitario, el Educativo y el Sistema de Pensiones. Ello ha implicado la necesidad de crear un marco normativo que garantice el derecho de la ciudadanía a acceder a esos servicios sociales. Además, requiere diseñar los recursos de tal manera que den solución a las necesidades de las personas y exige que el sistema sea económicamente sostenible en el tiempo.

En la actualidad, el armazón legislativo en relación a esta materia está marcado por la Ley de Servicios Sociales, la Ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, la Ley del Tercer Sector Social de Euskadi y la Ley de Apoyo a las Familias.



Lege horietan xedatutako ildoetan egindako jardunak Euskadi lehenengo tokian jarri du estatuan, babes-mailari dagokionez, eta erreferentzia da Europan ere. Euskal gizartea harrotasunez betetzen duen egoera horren abiapuntuko gogoeta hau da: gizarte-zerbitzuetan inbertitzen den aurrekontuak ekonomia- eta gizarte-itzulkina sortzen duela eta itzulkin hori denontzat onuragarria dela, bai administrazio publikoentzat, bai gizarte-zerbitzuen erabiltzaileentzat eta haien familientzat, bai gizarte osoarentzat.

Horregatik, Sailburuordetza zenbait ildo lantzen ari da:

2019an lortu beharreko helburuen artean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen zorroa garatzea dago, plangintza estrategikoari jarraiki, eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan zehaztutako helburuen jarraipenaren bitartez (2020ra arte egongo da indarrean).

Biztanleriaren zahartzea eta bizi-itxaropena handitzea apurka-apurka gora egiten ari den joera da, eta gizartearen arrakastaren adierazle argia da, gizarteak ahalegin handia egin baitu gehiago eta hobeto bizitzeko aukera ematen duten bitartekoak herritarren eskura jartzeko.

Zahartze hori erronka handia da, eta gizarte-eragileek eta gizarte zibilak, beste erakunde batzuekin batera, egin beharko diogu aurre. Testuinguru horretan, familien babeserako laguntzak funtsezkoak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntza emateko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 Familia eta Haurren aldeko Euskal Ituna zabaltzeko eta gauzatzeko tresna nagusia da, pertsonen beren familia-proiektua hasi eta nahi beste seme-alaba izatea zailtzen duten oztopoak pixkanaka ezabatu edo murrizteko. Laguntza ekonomikoak ematen dira –beharrezko alderdia, baina ez nahikoa–, baina planak beste ekimen batzuk ere hartzen ditu bere baitan, hala nola lana eta familia-bizitza bateragarri egiteko, eta elkarrekiko erantzukizuna eta berdintasuna sustatzeko neurriak.

Euskal biztanleriaren zahartze aktiboaren erronkari heltzeko Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia 2015-2020 dugu. Estrategia horrek lagunduko digu erronka demografikoari aurre egiten; arduraz jokatuta, baina ikuspegi positiboarekin beti, erronka hori beste era baterako gobernu-eredu berria eraikitzeo aukera ere badelako, herritarren, gizarte zibil antolatuen eta profesionalen parte-hartzea eta lankidetzeta izanda.

El ejercicio de las líneas que marcan estas Leyes ha situado a Euskadi en el primer lugar del Estado en cuanto a niveles de protección y constituye un referente en Europa. Esta situación que enorgullece a la sociedad vasca parte de la consideración de que el presupuesto que se invierte en Servicios Sociales implica un retorno económico y social que nos beneficia a todas y todos, a las administraciones públicas, a las personas usuarias y a sus familias, y en suma al conjunto de la sociedad.

Por eso, se avanza desde la Viceconsejería en varias líneas:

Por un lado, el desarrollo de la Cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales será uno de los objetivos que se deberán alcanzar durante el año 2019, de acuerdo con la planificación estratégica y a través del seguimiento de los objetivos marcados en el Plan Estratégico de Servicios Sociales, cuya vigencia se extenderá hasta 2020.

El envejecimiento de la población y el incremento de la esperanza de vida es una tendencia progresiva, y son claro indicador de éxito de una sociedad que ha realizado un importante esfuerzo para poner a disposición de su ciudadanía los medios que hacen posible vivir más y mejor.

Este envejecimiento supone un reto al que debemos dar respuesta conjuntamente con otras instituciones, agentes sociales y sociedad civil. En ese contexto, las políticas de apoyo a las familias son fundamentales.

El IV Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias en la Comunidad Autónoma de Euskadi 2018-2022, constituye la principal herramienta de planificación para el despliegue y la materialización del Pacto Vasco por las Familias y por la Infancia, y va dirigido a la progresiva eliminación o reducción de los obstáculos que dificultan que las personas puedan iniciar su proyecto familiar y tener el número de hijos e hijas deseado. Incluye no solamente ayudas económicas, cuestión necesaria pero no suficiente, sino otras iniciativas entre las que se encuentran las dirigidas a la conciliación, la corresponsabilidad y la igualdad.

Para abordar el reto del Envejecimiento Activo de la Población vasca contamos con la Estrategia Vasca de Envejecimiento Activo 2015-2020, que nos ayudará a abordar el reto demográfico desde la responsabilidad y desde la perspectiva positiva de que este reto también es una oportunidad y desde el compromiso de construir un nuevo modelo de gobernanza a través de la participación y colaboración de los ciudadanos y ciudadanas, la sociedad civil organizada y las personas profesionales.



Estrategia horretan sartzen da Euskadi Lagunkoia Sustraietatik ekimena. Aitortza handia jasotzen ari da nazioarteko zenbait batzar eta biltzar espezializatueta – duela gutxi, Lisboa, Manchesterren, Genevan eta Toronton-, ekimen aitzindarizat eta sortzailizat jotzen baita adinekoen jabekuntza lortzera bideratutako zenbait neurritan, honako hauek bermatzen dituztenak: adinekoen iritzia kontuan hartuko dela, eta baldintza hobek izango dituztela gizartean parte hartzeko, eta hiri- eta landa-eremuan, merkataritzan, errelatu historikoan eta abarrean jarduteko. Hala, gure udalerrak ingurune lagunkoioak izango dira zahartzen diren pertsonentzat.

Sailak eta Sailburuordetzak familia babesten aurrerapausoak emateko helburua dute, oinarritzko bi kezka hauek kontuan hartuta: batetik, seme-alabak dituzten familien zailtasun ekonomikoak gero eta handiagoak direla, eta, bestetik, herritarrek familia-proiektuak abian jarri eta nahi adina seme-alaba eduki ahal izateko dituzten oztopoek bere horretan dirautela.

Jaurlaritzaren eginkizunak, batez ere, arautzea, planifikatzea eta koordinatzea badira ere, ez dira ahaztu behar Jaurlaritzak gizarte-zerbitzuen arloan zuzenean jorratzen dituen gaiak. Halaxe daude jasota Gizarte Zerbitzuen Legean. Hain zuzen ere, telelaguntza (betiON zerbitzua), familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala, eta informazio- eta orientazio-zerbitzuak: babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua (Zeuk Esan zerbitzua), eta etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua (SATEVI).

Horiez guztiez gain, LGTBI kolektiboentzako arreta-zerbitzua (Berdindu) eta familiei laguntzeko zerbitzua daude. Bi zerbitzu horien jarduketak Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren bi zuzendaritzen memorietan jaso dira. Une hauetan garrantzi berezia dute gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL), askotan hil edo bizikoak baitira Euskadin bizi diren pertsona eta familia zehatz batzuentzat.

Beste laguntza garrantzitsu batzuk genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat dira. Amaitzen ez den gizarte-gaitza da genero-indarkeria; beraz, funtsezkoa da indarkeriaren biktima diren emakume eta haurrentzako arreta sustatzen jarraitzea. Eta horrez gain, beste indarkeria-forma batzuk (guraso eta seme-alaben arteko indarkeria, bullying-a...) prebenitzeko, detektatzeko eta haietan eragiteko gaitasuna hobetzea. Halaber, gora egiten ari diren beste indarkeria mota batzuk, hala nola adinekoen aurkako tratu txarrak, prebenitu, detektatu eta haietan eragiteko ere, “Adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura” dugu, etorkizunean tratu txar psikologikoei buruzkoarekin osatuko dena.

Amaitzeko, azpimarratu behar da funtsezkoa dela boluntarioen ekintzarekin, immigrazioarekin eta aniztasunaren kudeaketarekin lotutako gaiei ematen zaien babesa.

En dicha Estrategia se enmarca la iniciativa denominada “Euskadi Lagunkoia Sustraietatik”, que está siendo reconocida en diversos certámenes y congresos internacionales especializados –recientemente en Lisboa, Manchester, Ginebra y Toronto- al considerarse pionera y creativa en diversas medidas dirigidas al empoderamiento de las personas mayores garantizando que su opinión sea tenida en cuenta, unas mejores condiciones de participación social y de actividad en el terreno urbano y rural, comercio, relato histórico, etc., haciendo de nuestros municipios entornos más amigables con las personas que envejecen.

Es objetivo del Departamento y de la Viceconsejería seguir avanzando para dar protección a la familia respondiendo a dos preocupaciones básicas: el incremento de las dificultades económicas de las familias con hijos e hijas y la persistencia de obstáculos que dificultan que las personas puedan iniciar su proyecto familiar y tener el número de hijos e hijas deseado.

A pesar de tener una función básicamente reguladora, planificadora y coordinadora, no se deben olvidar las materias objeto de acción directa del Gobierno en Servicios Sociales establecidos como tales en la Ley de Servicios Sociales: la Teleasistencia (servicio betiON), el Servicio Integral de Mediación Familiar y los Servicios de información y orientación: el servicio de información social a la infancia y a la adolescencia en situación de desprotección (servicio Zeuk Esan), el servicio de información y atención a mujeres víctimas de violencia doméstica o por razón de sexo (SATEVI).

Además de ellos, se cuenta con el servicio de atención a colectivos LGTBI servicio Berdinu, y el de Apoyo a las Familias, materias cuyas actuaciones se detallan en las Memorias de las dos direcciones de la Viceconsejería de Políticas Sociales. Particular importancia tiene en estos momentos la gestión de las Ayudas de Emergencia Social (AES), ayudas vitales en muchos casos para personas concretas y familias que viven en Euskadi.

Otras ayudas importantes son las dirigidas a mujeres víctimas de violencia de género. Estamos ante una lacra social que no cesa, por lo que es fundamental continuar impulsando la atención a las mujeres y niñas/os víctimas de la violencia. Y también mejorar la capacidad de prevenir, detectar e incidir sobre otras formas de violencia (violencia filio-parental, bullying,...); y otras que parecen emerger como el maltrato hacia las personas mayores, para lo que contamos con un “Procedimiento de prevención y detección de malos tratos físicos y económicos a personas mayores”, que en un futuro se completará con el relativo al maltrato psicológico.

Finalmente, es preciso resaltar el apoyo a la acción voluntaria, la Inmigración y la gestión de la diversidad.

Boluntariotzaren arloan, Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2017-2020 nabarmendu behar da. Gizartearen parte-hartzea eta boluntariotza, parte-hartze horren adierazpen nagusietako bat den aldetik, gizarte demokratiko bat egituratzen duten ardatz nagusietako bi dira.

Etorkinei Arreta emateko Euskal Sistema erreferentziazko harrera-, sentsibilizazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzu integrala da, bai etorkinentzat, bai herritarrentzat, oro har. Zerbitzu hori emateko bitartekoak, tresnak eta baliabideak jarriko dira; besteak beste, hauek: Biltzen, Ikuspegi, harrera-sistema, atzerriarrentzako aholkularitza juridikoko sistema, etab.

Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana, 2018-2020 delakoak lehentasunezko jarduera-ildo batzuk ezartzen ditu, egungo eta etorkizuneko euskal gizartea honelakoa izan dadin: berdintasunezko gizartea, herritarrek eskubideak izateari dagokionez, Euskadin bizi diren pertsona guztientzat aukera-berdintasuna egon dadin; kohesio handiagoko gizartea, eta elkartasun handiagokoa egoera ahulenean dauden gizarte-kolektiboekin, pertsona eta kultura guztien dibertsitatea errespetatuz eta gizarte-elkarreragin positiboko testuingurua sustatuz.

Immigrazioa egungo eta etorkizuneko errealitatea da, eta kultura-aniztasun gero eta handiagoa, berriz, etorkizuneko euskal gizartearen egiturazko gakoetako bat izango da.

Hala, aniztasunaren kudeaketa eta kulturartekotasunaren erabilera –gizarte-eraldaketarako faktore gisa– Euskadira funtsezko proiektuak dira. Hau da plan horren lehentasunetako bat: gai hori dimentsionatzea eta gure gizartearen eta gure gizartea gobernatzen duten pertsonen agenda estrategikoan egoki kokatzea.

Testuinguru horretan, indarra hartzen du Euskadin Immigrazioarako Itun Sozialari berriz heltzeko beharrak, akordio politikoko dokumentua izan dadin, esparru horretan "joko"-koordinatuak euskal gizarte osoarentzat ezartzeko.

Saileko gizarte-politikan arreta berezia ematen zaio Europak bizi duen migrazio-fenomenoari, hegoaldetik iparralderanzko bide berriak sortu ostean, bai eta Sahara azpiko Afrikatik etorrita migrazio-fluxu horiek osatzen dituztenen arreta-beharrei ere.

Etengabe aldatzen ari den fenomenoari aurre egiteko – Afrikatik etorritako migrazio-fluxuak, adibidez–, jarduketak formula berriak aurrekusi dira 2019rako, betiere hirugarren sektore sozialeko beste erakunde eta organismoekin lankidetzan jardunda.

Halaber, Harrera programa eguneratzen eta garatzen jarduten ari gara. Programa hori Euskadi beren gizarte- eta lan-bizirako jomugatzat hautatu duten, edo aukera hori aztertzen ari diren, migratzaileentzat da.

En materia de voluntariado cabe destacar la Estrategia Vasca del Voluntariado 2017-2020. La participación social y el voluntariado como una de sus principales expresiones, son dos de los ejes vertebradores más significativos de una sociedad democrática.

El Sistema Vasco de Atención a las Personas Inmigrantes constituye un servicio referente e integral de acogida, sensibilización, asesoramiento y de información, tanto para las personas inmigrantes como para la ciudadanía en general. Para llevar a cabo este servicio se dispondrá de medios, instrumentos y dispositivos, como por ejemplo: Biltzen, Ikuspegi, sistema de acogida, sistema de atención jurídica en extranjería, etc.

El Plan de Ciudadanía Interculturalidad e Inmigración del V Plan de Actuación en el ámbito de la Ciudadanía, Interculturalidad e Inmigración 2018-2020 establece las líneas prioritarias de acción encaminadas al objetivo de construir de una sociedad vasca, presente y futura, igualitaria en el acceso a derechos ciudadanos, que facilita la igualdad de oportunidades de todas las personas que residen en Euskadi, más cohesionada socialmente y más solidaria con los colectivos socialmente más desfavorecidos, respetando la diversidad de todas las personas y culturas y potenciando un contexto de interacción social positiva.

La inmigración es una realidad presente y futura y la creciente diversidad cultural es una de las claves estructurales que va a definir la sociedad vasca del futuro.

Así, la gestión de la diversidad y el uso de la interculturalidad como factores de transformación social constituyen un proyecto fundamental de país. Una de las prioridades de este plan es dimensionar y situar adecuadamente el tema que nos ocupa en la agenda estratégica de nuestra sociedad y de las personas que la gobiernan.

En este contexto cobra vigencia la necesidad de retomar el Pacto Social por la Inmigración en Euskadi, como documento de acuerdo político que establezca las coordenadas "de juego" en este ámbito para el conjunto de la sociedad vasca.

Las políticas sociales del Departamento dedican una especial atención al fenómeno migratorio que vive Europa tras el surgimiento de nuevas rutas sur/norte y la necesidad de atención a quienes protagonizan esos flujos procedentes del África subsahariana.

Ante un fenómeno permanentemente en cambio –las migraciones procedentes de África– se prevén nuevas fórmulas de actuación para 2019, siempre en colaboración con otras instituciones y entidades del tercer sector social.

También se trabaja en la actualización y desarrollo del programa Harrera dirigido a personas migrantes que han elegido o estudian la posible elección de Euskadi como destino de su vida social y laboral.

Gizarte-babeserako politika abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzekoak – azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatu zuen–, ezarritako testuinguruan kokatzen da eta gizarte-koehesiorako tresna garrantzitsua da gaur egun, aukera eman baitu Euskadi berdintasunaren aldeko gizartea izaten jarraitzeko; izan ere, pobrezia eta desberdintasunari buruzko adierazleen balioak txikiagoak dira Euskadin Europar Batasunean baino. Laguntza ekonomiko eta pertsonalizatu horiek gizarteratzea dute helburu, eta ekintza-ildo bateratua osatzen dute, bazterkeria-egoerak saihesteko, edo, halakorik gertatuz gero, egoera horietatik irteten laguntzeko.

Esparru horretan, halaber, Etxerik Gabeko Euskal Estrategia 2018-2021 programa nabarmendu behar da. Diru-sarreraren bermearen arloan eskubide bikoitza (diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoa eta gizarteratzeko behar diren laguntzak) sendotu den modu berean, estrategia honen abiapuntua etxerik gabeko pertsonen eskubide bikoitza bermatzearen beharra da: batetik, etxebizitza independenterako eskubidea, eta bestetik, autonomia eta bizi-kalitatea izateko eta gizarteratzeko behar diren laguntzetarako eskubidea.

Aipatutako guztia bat dator erabat –eta gaintu ere gaintzen ditu– Europako Batzordeak Gizarte Eskubideen Europar Zutabearen adierazitako printzipioekin.

Enplegu eta gizarte-politika plan, estrategia eta politika horiek garatuta, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldiko helburuak gauzatzen ditu, Europar Batasunaren barruan gizarte solidarioagoa eta kohezionatua ezartze aldera.

La política de protección social, enmarcada en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la garantía de ingresos y la inclusión social, modificada mediante la Ley 4/2011, de 24 de noviembre, se ha erigido en importante instrumento de cohesión social, que ha permitido a Euskadi mantener su perfil de sociedad igualitaria, con indicadores de pobreza y desigualdad inferiores a los de la Unión Europea. Esos apoyos económicos y personalizados están orientados a la inclusión social y constituyen una única línea de acción para tratar de evitar la caída en situaciones de exclusión o, en su caso, para tratar de salir de ella.

En este ámbito es preciso asimismo destacar la Estrategia Vasca para Personas sin Hogar 2018-2021. De la misma manera que en el ámbito de la garantía de ingresos se ha consolidado el concepto de doble derecho (a la prestación económica de garantía de ingresos y a los apoyos necesarios para la inclusión social), esta estrategia parte de la necesidad de garantizar también un doble derecho a las personas sin hogar: el derecho a una vivienda independiente y el derecho a los apoyos necesarios para la autonomía, la calidad de vida y la inclusión social.

Todo lo comentado coincide plenamente, e incluso supera, con los principios establecidos en el pilar europeo de los derechos sociales marcados por la Comisión Europea.

2. Implementación efectiva de las Directivas Aves y Hábitats, especialmente en la Red Natura 2000, núcleo de la conservación de la Biodiversidad en Europa.

1. Natura-ondarea kontserbatzeko araudia eta xedapenak eguneratzea eta modernizatzea.
  2. Natura 2000 Sarea sustatzea, KBE (Kontserbazio Bereziko Eremuak) eta HBBE (Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak) kontserbatzeko helburuei eta neurriei buruzko dokumentuak abiarazi eta aplikaturik.
  3. Naturagune babestuen eta hezeguneen plangintza eta kudeaketa egiteko tresnen koherentzia hobetzea, horiek bateratuz.
  4. Natura 2000 Sarearen gida-plana eratzea Euskadin, eta hor jasota gera daitezela alderdi teknikoak, administraziokoak eta gobernanzakoak.
3. Naturaren ezaguera eta kultura sustatzea.
    1. Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema sustatzea eta sendotzea.
    2. Natura-ondareari buruzko ikerketa aplikatuko proiektuak bultzatzea, haren inguruko eta kudeaketa-beharren inguruko ezagutza hobetzen laguntzeko.
    3. Herritarren parte-hartzea bultzatzea, zientziari buruzko prestakuntzaren eta herritarren ekimenen bitartez.
    4. Natura-ondareari buruz oro har eta Natura 2000 Sareari buruz bereziki, programa bat eta komunikazio-ekintzak abiaraztea.
    5. Nazioarteko programa eta proiektuetako parte-hartze teknikoa sustatzea.
  4. Lurraldearen eta natura-ondarearen kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia izatea.
    1. Sektoreko politiketan natura-ondarea kontserbatzeko beharren integrazioa hobetzea; bereziki, lurralde-plangintza eta lehen sektorea.
    2. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren kudeaketa bultzatzea. Bereziki, garapen jasangarria bultzatzeko. Aurrera egingo da turismo-, nekazaritza- eta baso-sektoreetan jasangarritasuna bultzatzeko proiektuen plangintzari nahiz horiek abian jartzeari dagokienez.
    3. Jarduera Sozioekonomikoak Bateratu eta Garatzeko Programa (JSBGP) betetzeko bultzada ematea.
1. Actualización y modernización de la normativa y disposiciones para la conservación del patrimonio natural.
  2. Impulso de la Red Natura 2000 mediante la puesta en marcha y aplicación de los documentos de objetivos y medidas de conservación ZEC y ZEPA.
  3. Mejora de la coherencia de los instrumentos de planificación y gestión de los espacios naturales protegidos y humedales, unificando los mismos.
  4. Elaboración del plan director de la Red Natura 2000 en el País Vasco que incluya los aspectos técnicos, administrativos y de gobernanza.
3. Promoción del conocimiento y la cultura de la Naturaleza
    1. Impulso y fortalecimiento del Sistema de Información de la Naturaleza de Euskadi.
    2. Impulso a los proyectos de investigación aplicada sobre el patrimonio natural, que contribuya a la mejora de su conocimiento y de las necesidades de gestión.
    3. Fomento de la implicación ciudadana, mediante la formación y las iniciativas de ciencia ciudadana.
    4. Puesta en marcha de un programa y acciones de comunicación sobre el patrimonio natural en general y la Red Natura 2000, en especial.
    5. Fomento de la participación técnica en foros de encuentro y proyectos internacionales.
  4. Eficacia y eficiencia en la gestión del territorio y del patrimonio natural
    1. Mejora de la integración de las necesidades de conservación del patrimonio natural en las políticas sectoriales, especialmente la planificación territorial y el sector primario
    2. Impulso a la gestión de la Reserva de Biosfera de Urdaibai. Especialmente en el impulso del desarrollo sostenible. Se avanzará tanto en la planificación como en la ejecución de proyectos para el impulso de la sostenibilidad en los sectores turístico, agrícola y forestal.
    3. Impulso en el cumplimiento del Programa de armonización y desarrollo de las actividades socioeconómicas (PADAS).

**2. Helburu Estrategikoa: BALIABIDEETAN ERAGINKORRA DEN KARBONO KONTSUMO BAXUKO EKONOMIA**

**Objetivo Estratégico 2: ECONOMIA BAJA EN CARBONO, ADAPTADA A LOS EFECTOS CLIMÁTICOS Y EFICIENTE EN RECURSOS.**

Karbono-kontsumo baxuko ekonomiaren eremuan, 2050era begirako ikuspegia honako hau litzateke: «Euskadik karbono gutxiko eta klima-eraginetara egokitutako ekonomia lehiakorra dauka, ezagutzen oinarritutako klima-aldaketaren arloko politika bat finkatzetik eratorria; horrek ahalbidetu du berrikuntzak eta garapen teknologikoak eskaintzen dituzten aukerak baliatzea».

2050era begirako Klima Aldaketaren Estrategian jasotako helburuak honako hauek dira:

2005eko datuekin alderatuta, Euskadiko berotegi-efektuko gasen isurketak gutxienez % 40 murriztea 2030erako eta, 2050erako, gutxienez % 80.

Energia berriztagarrien kontsumoa amaierako kontsumoaren % 40 izatea 2050ean eta, 2030erako, % 20.

EAEk klima-aldaketaren aurrean erresilientzia izan dezan hobetzea.

Horretarako, honako ekintza hauek egingo dira:

1. Klima Aldaketari buruzko Legea idaztea, izapidetzea eta onartzea.
2. Saileko eraikinak eraberritzea euren energia-efizientzia hobetzeko.
3. Azpiegitura berdeak eta naturan oinarritzen diren irtenbideak bultzatzea, klima-aldaketara egokitzeko eta hiri-jasangarritasuneko neurri gisa.
4. Udalerri-mailan klima-aldaketara egokitzeko politikak eta neurriak sustatzea, Udalsarea 21 Sarearen esparruan.
5. Klima-aldaketara egokitzeko ikuspegia txertatzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan jasotako EAEko lurralde-estrategia berrikusteko prozesuan, eta klima-aldaketa lurralde- eta hiri-antolamenduko tresnetan txertatzeko mekanismoak zehaztea.
6. Itsas mailaren igoerak eragindako kostaldeko eremuak identifikatzea.
7. Atmosferara isuriak eragiten dituzten jarduerak berrikustea teknika erabilgarri onenetara eta gutxitzeko teknologietara egokitzeko, emisio lausoetan arreta berezita jarriko da.
8. Hiri-hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta birziklatzea sustatzea.
9. Eremu urrakorrak identifikatzea eta monitorizatzea (uholdeen, lur-jauzien, olatuen, itsasoaren mailaren igoeraren eta denboraldien aurrean), ekintza-planak definitzea eta eraginak murriztea.

En el ámbito de la ECONOMÍA BAJA EN CARBONO, la Visión a 2050 sería: “Euskadi cuenta con una economía competitiva baja en carbono y adaptada a los efectos climáticos, derivada de la consolidación de una política de cambio climático basada en el conocimiento, que ha permitido aprovechar las oportunidades que ofrecen la innovación y el desarrollo tecnológico”.

Los objetivos recogidos en la Estrategia de Cambio climático 2050 son:

Reducir las emisiones de GEI de Euskadi en al menos un 40% a 2030 y en al menos un 80% a 2050, respecto al año 2005.

Alcanzar en el año 2050 un consumo de energía renovable del 40% sobre el consumo final, y del 20% respecto al 2030.

Mejorar la resiliencia del territorio vasco al cambio climático.

Mediante la realización de las siguientes acciones:

1. Redacción, tramitación y aprobación de la Ley de Cambio Climático
2. Renovación de edificios existentes del Departamento para mejorar su eficiencia energética.
3. Promover infraestructuras verdes y soluciones basadas en la naturaleza como medidas de adaptación al cambio climático y sostenibilidad urbana.
4. Impulsar en el ámbito municipal de políticas y medidas de adaptación al cambio climático en el marco de la Red de Udalsarea 21.
5. Integrar la perspectiva de la adaptación al cambio climático en el proceso de revisión de la estrategia territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi recogida en las Directrices de Ordenación del Territorio y definir los mecanismos para la integración del cambio climático en los instrumentos de planificación territorial y urbana.
6. Identificar las zonas costeras afectadas por la subida del nivel del mar.
7. Revisar las actividades con emisiones a la atmósfera para adaptarlas a las mejores técnicas disponibles y a tecnologías de mitigación. Incidiendo sobre las emisiones difusas.
8. Fomentar la prevención, reutilización y reciclaje de los residuos urbanos.
9. Identificar y monitorizar las áreas vulnerables (ante inundaciones, desprendimientos, oleaje y subida del nivel del mar y temporales), definir planes de acción y reducción de los impactos.



10. Klima-aldaketaren aldagaia txertatzea ZTBP Euskadi 2020 planeko lehentasun estrategikoetako (energia, osasuna eta lurraldea) berrikuntza-proiektuetan.

11. «KlimaTEC» ekimena eta proiektuak dinamizatzea, ezagutza aurreratua eskualdatzeko eta frogapen-proiektuak aurkezteko klima-aldaketarako egokitzapenari eta horren erresilientziari dagokionez.

12. «KLIMA 2050» ataria kudeatzea, klima-aldaketaren gaian eragile, administrazio eta herritarrek erreferentetzat jotzeko.

13. Berotegi-efektuko gasen emisioen borondatezko murrizketari dagokion atal bat sartzea EAEn ingurumen-eragina duten jardueren erregistroan.

BALIABIDEETAN ERAGINKORRA DEN EKONOMIAren eremuan, Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak (2020) ekonomia zirkularren kontzeptua barneratzen du. Horri jarraikiz, hondakinak ez dira hondakin gisa ikusten, baliabide gisa baizik. Plan horrek indarrean dagoen artean gauzatu beharreko 154 neurri jasotzen ditu (prebentziozko 47; gaikako bilketa eta banaketarako 15; berrerabiltzeko prestaketarako, hau da, birziklatzeko eta baloratzeko, 59; deuseztatzea optimizatzen 10 eta administrazioaren eredugarritasunari eta gobernu onari dagozkion 23).

Era berean, alor horretan hondakin-korronteen gaineko xedapen zehatzak onartzeak egungo ekonomiaren kontzeptuaren aldaketa erradikala ekarriko du, aukera eta lanpostu berriak sortuz.

Honako jarduera edo ekintza-ildo hauek proposatzen dira:

1. Hondakinak berrerabili, birziklatu eta baloratzeko prestakuntza handitzea, baita ahalik eta hondakin gutxien deuseztatzeke tresnak garatzea ere. Bestek beste, ordeko aukerak bilatuko dira, beste administrazio publikoekin eta pertsona juridiko pribatuekin elkarlanean arituz.

2. Ekonomia-hazkundearekin lotuta, baliabideen kontsumoa murriztea. Horretarako, prebentzio-neurriak hartu eta hondakinak gutxitzeko informazio-eta sentsibilizazio-kanpainak egingo dira, baita industria-alorrean jardunbide egokiak ezarri ere. Hori guztia hondakinak murrizteko planetan adieraziko dute jardueren titularrek, eta, hala badagokio, tartean diren beste administrazio publiko batzuekin elkarlanean.

3. Ekoizleen erantzukizun zabalduan oinarritutako sistemen bidez aurrera eramandako ekintzen jarraipen eta kontrola egitea, hondakinen produkzio eta kudeaketan aritzen diren pertsona fisiko eta juridikoen eta toki-erakundearen arteko akordioaren bitartez.

10. Incorporar la variable de cambio climático en los proyectos de innovación dentro de las prioridades estratégicas del PCTI Euskadi 2020: energía, salud y territorio.

11. Dinamizar la iniciativa y los proyectos Klimatek «KlimaTEC» para la transferencia del conocimiento avanzado y para la presentación de proyectos de demostración en materia de adaptación y resiliencia ante el cambio climático.

12. Gestionar el portal «KLIMA 2050» como referencia en materia de cambio climático por de los agentes, las administraciones y la sociedad

13. Introducción de una sección de reducciones voluntarias de emisiones de GEI en el Registro de actividades con incidencia ambiental de la CAE.

En el ámbito de la ECONOMÍA EFICIENTE EN RECURSOS, el Plan de Prevención y Gestión de Residuos 2020 incorpora el concepto de economía circular, en el que los residuos se convierten en recursos susceptibles de reintroducirse en el mercado. Dicho Plan contiene 154 medidas (47 de prevención; 15 de recogida selectiva y separación; 59 de preparación para la reutilización: reciclaje y valorización; 10 de optimización de la eliminación y 23 de ejemplaridad de la administración y buen gobierno), a llevar a cabo a lo largo de su vigencia.

Así mismo en este ámbito, desde Gobierno Vasco se estudian distintas corrientes de residuos al objeto de establecer unos usos determinados y controlados ambientalmente mediante la promulgación de órdenes y decretos.

Se plantean las siguientes acciones o líneas de actuación:

1. Incrementar la preparación para la reutilización, el reciclado y la valorización de residuos, así como desarrollar instrumentos para la minimización de la eliminación de los mismos. Entre otros, se buscará alternativas en colaboración con otras administraciones públicas y personas jurídicas privadas.

2. Reducir el consumo de recursos, en relación con el crecimiento económico, impulsando campañas de información y sensibilización para la prevención y reducción de residuos, así como la implantación en el ámbito industrial de buenas prácticas, que se reflejarán en los planes de minimización de residuos a elaborar por las y los titulares de las actividades, en colaboración, en su caso, con otras administraciones públicas implicadas.

3. Seguimiento y control de las actuaciones llevadas a cabo por los sistemas de responsabilidad ampliada de la persona productora, a través de acuerdos con las personas físicas y jurídicas productoras y gestoras de residuos y entidades locales. Estos convenios tendrán carácter preventivo y promoverán la correcta gestión de los residuos sometidos a estos sistemas.



4. «Azpiproduktu» edo «hondakinaren bizitzaren bukaera» kontzeptu berrien erabilera eraginkorra bultzatzea, hondakinetatik eratorritako materialak ahal den ondoen aprobetxatzeko. Horretarako, oztopo administratiboak gutxituko dira, ingurumen-arloko segurtasunari eta babesari kalterik egin gabe. Horretarako, eskumen-banaketa kontuan hartuta, NAEIMek (Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioa) sortutako lantalde guztietan parte hartuko da. EAEk, gainera, hala badagokio, hondakin-tipologia batek eduki ditzakeen askotariko erabilera zahazteko betekizun teknikoak ezarriko ditu administratiboki, EAEn sortzen eta kudeatzen diren hondakinei dagokienez; besteren artean, arku elektrikoaren zepak, balorizazio energetikoa eta biomasa.

5. Etxeko hondakinak kudeatzeko gidaleroen zirriborroa egitea, foru-aldundiekin eta udalekin elkarlanean. Halaber, tokiko erakundeekin koordinatuta, EAEko lurralde osoan etxeko hondakin jakin batzuk gaika biltzea sustatuko da; esaterako, sukaldeko hondakinak, etxeko hondakin arriskutsuak eta egituretako fibrozementuzko hondakinak.

6. Ekoizle txikiek modu oso sakabanatuan sortzen dituzten hondakinen kudeaketa hobetzeko ekimen edota esperientzia pilotuak sustatzen jarraitzea, elkarteei lagunduz. Era berean, hondakin jakin batzuk (galdategietako hareak, adibidez) ekoizte-prozesuan berriro sartzearen alde egitea, eta bestelako hondakin mota batzuekin gauza bera egiteko aukera aztertzea.

7. Hondakinen lekualdaketa ikuskatzeko plan bat egitea eta plan horrek, EB 660/2014 Araudian xedatutakoa kontuan hartuta, araudiaren betetze-maila hobetzen eta ingurumenerako arriskuak gutxitzen laguntzea, horretarako Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak sortutako taldearekin batera.

8. Hondakinen inbentarioak egiteko metodologiak optimizatzea datuen kalitatea eta berauek eskuratzeko azkartasuna bultzatuz.

9. EAEn ekoiztiko produktuei ekoetiketak ematea.

4. Impulso a la efectiva aplicación de los nuevos conceptos de “subproducto” y “fin de vida de residuo” a fin de optimizar el aprovechamiento de materiales provenientes de residuos, reduciendo las trabas administrativas sin detrimento de la seguridad y protección medioambiental. Para ello, habida cuenta de la distribución competencial, se participa en todos los grupos de trabajo creados por el MAPAMA. Desde la CAPV, además, se determinarán en su caso, administrativamente, los requisitos técnicos orientados a determinar distintos usos que puede tener una tipología de residuos, en residuos producidos y gestionados en la CAPV, tales como escorias de arco eléctrico, de valorización energética y biomasa, entre otras.

5. Elaboración del borrador de directrices para la gestión de los residuos domésticos en colaboración con las Diputaciones Forales y Ayuntamientos. También se promoverá la implantación, en coordinación con las entidades locales, de la recogida selectiva de determinados residuos domésticos a todo el territorio de la CAPV: residuos de cocina, residuos peligrosos del hogar, residuos de fibrocemento estructural etc.

6. Continuar con la promoción de iniciativas y/o experiencias piloto, tendentes a optimizar la gestión de residuos generados de forma muy atomizada por las y los pequeños productores mediante el apoyo a las Asociaciones. Asimismo favorecer la reintroducción en el proceso productivo de determinados residuos, como las arenas de fundición, y analizar la posibilidad de hacer lo mismo con otras corrientes de residuos.

7. Elaborar un plan de inspección de traslado de residuos que, contemplando lo establecido en el Reglamento UE 660/2014, contribuya a mejorar el grado de cumplimiento y reducir el riesgo para el medio ambiente, en colaboración con el grupo creado a tal efecto por el MAPAMA.

8. Optimizar la metodología para la elaboración de los inventarios de residuos en cuanto a calidad y veracidad en la obtención de datos, que permita una más óptima toma de decisiones.

9. Concesión de ecoetiquetas a productos elaborados en la CAPV.

### 3. Helburu Estrategikoa: INGURUMEN OSASUNGARRIA-INGURUMEN KALITATEA.

Ingurumen-legeriak autonomia-erkidegoei aitortzen dizkien eskumenen testuinguruan, ingurumenari eragingo dioten jarduerak baimentzeko, zaintzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko jarduketak egiten dira; horiek ingurunearekin bateragarri egite aldera, eta ingurumen-bektoreetan duten eragina (atmosfera, lurzorua, zarata, hondakinak, etab.) eragozteko edo gutxitzeko.

### Objetivo Estratégico 3: MEDIO AMBIENTE SALUDABLE-CALIDAD AMBIENTAL.

En el marco de las competencias que la legislación ambiental reconoce a las comunidades autónomas se lleva a cabo las actuaciones de autorización, vigilancia, inspección y control de las actividades con incidencia potencial en el medio ambiente en aras a compatibilizar las mismas con el entorno, evitando y/o minimizando la afeción de las mismas en los distintos vectores ambientales (atmósfera, suelo, ruido, residuos, etc.)

Eguneroko kudeaketako administrazio-izaerako jarduketa horiek egiteaz gain, herritarrei ematen zaien zerbitzua bateratu egiten da erabakitzekeo zenbait forotan parte hartzearekin, estatuan zein Europan. Horietan, EAEko industria-sektoreari aplikatzekoak diren erreferentziakoko dokumentuak garatzen dira, EAEko enpresei epe laburrera edo ertainera aurreikus daitezkeen aldaketen berri emateko unean-unean.

Helburu estrategiko horri lotutako helburu, ekintza eta adierazleak jarduketa arrunt horiekin bat datoz. Horregatik, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari atxikitako zerbitzu teknikoek egiten dituzten administrazio-egintzetan kontabilizatzen dira, baita herritarrek jasotako agirietan ere.

Zehazki, ondorengo ekintza eta jarduera-ildoak bultzatzen dira:

1. Ingurumen Administrazioaren Legea izapidetzea eta onartzea.
2. EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea etengabe hobetzea eta mantentzea, sare teknologikoki aurreratu bat izateko xedez. Izan ere, sare horrek aukera emango du EAEko airearen kalitateari buruzko datuak ustiatzeko, arlo horretan erabakiak hartzen laguntzeko eta, unean-unean sor daitezkeen arazoan arabera, kontrol-kanpainak egiteko.
3. Atmosfera babesteko araudiaren ondoriozko jarduketak betetzea, bai dagozkion baimenetatik eratorritakoak, bai araudia bete behar duten industriek egindako isurien jarraipen, egiaztapen eta kontrolarekin lotutakoak.
4. Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen mende dauden instalazioak aldatzeko eskaerak eta instalazio berriak jartzeko eskaerak izapidetzea. Bestalde, emandako baimenen ofiziozko berrikuspenak igorriko dira, Europar Batzordeak onartutako agirien argitalpenaren arabera (eskuragarri dauden teknika hobeei buruzko ondorioen inguruko agiriak dira horiek).
5. Hondakinen ekoizpen eta kudeaketan zerikusia duten jarduera guztien jarduketa administratibo egokia ahalbidetuko duten lanekin jarraitzea, lurren betelanak eta dauden harkaitzak barne.
6. Berotegi-efektua eragiten duten gasak isurtzeko eskubideen merkataritza-erregimena ezartzearen ondorio diren jarduketak betetzea, bai dagozkion baimenetatik eratorritako araubidean, eta bai araudia bete behar duten industriek egindako isurien jarraipen, egiaztapen eta kontrolean.
7. Ikuskapen eta kontrolaren bitartez, jarduera ekonomikoen ingurumen-araudiaren eta haiei emandako baimenen betetze-maila handitzea.

Además de llevar a cabo estas actuaciones de índole puramente administrativa de la gestión diaria, se compatibiliza este servicio a la ciudadanía con la participación en distintos foros de decisión tanto a nivel estatal como europeo, en los que se desarrollan los documentos de referencia aplicables al sector industrial vasco, al objeto de mantener a las empresas de la CAPV puntualmente informada de cualquier cambio que se pueda prever en el corto o medio plazo.

Los objetivos, acciones e indicadores relacionados en este objetivo estratégico se corresponden con estas actuaciones ordinarias, y por ello se contabilizan en los distintos actos administrativos que realizan los servicios técnicos adscritos a la Dirección de Administración Ambiental, así como en los documentos recibidos por los administrados.

En concreto se realizan distintas acciones en las siguientes líneas de actuación:

1. Tramitación y aprobación de la Ley de Administración Ambiental.
2. Mejora en continuo y mantenimiento de la Red de Control de la Calidad del Aire de la CAPV al objeto de disponer de una red tecnológicamente avanzada que permita la explotación de los datos de la calidad del aire de la CAPV, para el apoyo en la toma de decisiones en esta materia, así como para la realización de campañas de control en función de la problemática puntual que pueda acaecer.
3. Cumplimiento de las actuaciones derivadas de la normativa de protección de la atmósfera, tanto en régimen derivado de las autorizaciones oportunas como en el seguimiento, verificación y control de las emisiones realizadas por las industrias afectadas.
4. Tramitación de las solicitudes de modificación de las instalaciones sometidas a la Ley 16/2002, de 1 de julio sobre Prevención y Control integrados de la Contaminación así como las solicitudes de implantación de nuevas instalaciones. Por otra parte, se emitirán las revisiones de oficio de las autorizaciones concedidos en función de la publicación de los documentos europeos de Conclusiones sobre Mejores Técnicas Disponibles aprobado por la Comisión Europea.
5. Continuación de las labores que permitan una correcta gestión y fiscalización administrativa de todas aquellas actividades implicadas en la producción y gestión de residuos, incluidos los rellenos de tierras y roca existentes.
6. Cumplimiento de las actuaciones derivadas del régimen de comercio de derechos de emisión de gases de efecto invernadero, tanto en régimen derivado de las autorizaciones oportunas, como en el seguimiento, verificación y control de las emisiones realizadas por las industrias afectadas.
7. Mejorar el grado de cumplimiento de las autorizaciones y normativa ambiental por las actividades económicas, mediante la inspección y control.

8. Usainarekin lotutako arazoak sortzen dituzten emisio-iturriak identifikatzeko kanpaina espezifikoa egitea.

9. Kutsadura akustikoa murriztea zarata-mapak eta zarataren kontrako ekintza-planak egiten lagunduz, arlo honetan eskumena duten administrazioekin elkarlanean.

10. Ingurumen-organoari dagozkion eta EAeko lurraldean erabilera eta ekintza berriak ezartzeko nahitaezkoak diren lurzoruaren kutsaduraren prebentzio- eta zuzentze-lanekin jarraitzea.

11. Ikerketak eta jarduketak bultzatzea lurra kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lur publikoetan.

12. Ingurumen auziek lotutako herritarren kezak eta informazio-eskaerak kudeatzea eta, hala behar izanez gero, baliabide espezializatuak baliatu.

13. Enpresa-elkarteen bidez, prestakuntza ematea araudi berrian edo ingurumen-dokumentu berrietan jasotako gaien inguruan.

14. Elkarlanean aritzea eragile sozialekin, zientzia eta teknologiaren arloko eragileekin eta teknologia garbiak ikertu, garatu eta ezartzeko lanetan ari diren industriekin. Ereku horretan kokatzen dira enpresei ingurumen-arloan inbertsioak egiteko ematen zaizkien diru-laguntzak. Inbertsioek izaera eko-berritzailea izan behar dute.

#### 4. Helburu estrategikoa: LURRALDEAREN JASANGARRITASUNA.

Ingurumeneko Esparru Programak helburu gisa ezartzen du 2020rako Euskadik ingurumen-jasangarritasuna udal-politika ardatz garrantzitsu gisa txertatua izatea, betiere herritarren bizi-kalitatea hobetzeko xedearekin. Tokian tokiko jasangarritasuna bultzatzen duen lurralde-oreka bultzatu behar da, ondare naturala babestu eta leheneratuz, negozio- eta enplegu-aukerak aintzat hartuz, hiri- eta industria-ehunen leheneratzearen eta mugikortasun jasangarriaren eskutik hirietako bizitza hobetzea bultzatzen duen lurralde-politika sustatuz, eta herritarrak osasunarentzat kaltegarriak diren ingurumen-arriskuetatik babestuz.

Horretarako, honako ekintza hauek egingo dira:

1. Pertsonen kontsumo arduratsua bultzatzea.
2. Azpiegitura berdeak garatu eta ezartzea, klima-aldaketaren eraginak arintzeko eta horretara egokitzeko, eta onura ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak lortzea, natura lurraldean txertatzera bideratutako konponbideen bitartez.
3. Pertsonen eta salgaien mugikortasun jasangarrirako hiri-ereduak bultzatzea.

8. Realización de campañas específicas para la identificación de las fuentes de emisión que originan problemáticas vinculadas con olores.

9. Reducir la contaminación acústica apoyando la elaboración de mapas de ruido y planes de acción que mitiguen el ruido, en colaboración con las administraciones afectadas.

10. Continuación de las labores que en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo corresponden al órgano ambiental y que resultan preceptivas para la implantación de nuevos usos o actividades en el territorio de la CAPV.

11. Apoyar las investigaciones y actuaciones en suelos públicos que hayan soportado actividades potencialmente contaminadoras del suelo.

12. Gestión de las quejas y denuncias ciudadanas relacionadas con cuestiones medioambientales, enviando medios especializados si así es requerido.

13. Formación a través de las Asociaciones Empresariales en las distintas cuestiones recogidas en la nueva normativa o nuevos documentos ambientales.

14. Colaboración con los agentes sociales, científico-tecnológicos y con las industrias que están trabajando en la investigación, desarrollo y aplicación de tecnologías limpias. En este ámbito se encuadran las subvenciones a empresas para realizar inversiones en materia de medio ambiente, inversiones que deben reflejar su carácter eco-innovador.

#### Objetivo Estratégico 4: SOSTENIBILIDAD DEL TERRITORIO

El Programa Marco Ambiental 2020 plantea como objetivo estratégico que en 2020 Euskadi haya incorporado la sostenibilidad ambiental como eje relevante de sus políticas municipales orientadas a mejorar la calidad de vida de sus habitantes. Un equilibrio territorial que impulsa la sostenibilidad local, protegiendo y restaurando su patrimonio natural, poniendo en valor las oportunidades de negocio y de creación de empleo, trabajando en la regeneración de la vida urbana a través de una política territorial que promueva la regeneración de los tejidos urbanos e industriales y la movilidad sostenible, y protegiendo a la ciudadanía de los riesgos ambientales para la salud.

Mediante la realización de las siguientes acciones:

1. Impulsar el consumo responsable de las personas.
2. Desarrollar e implantar infraestructuras verdes para favorecer la mitigación y adaptación al cambio climático y aportar beneficios ecológicos, económicos y sociales mediante soluciones que integran la naturaleza en el territorio.
3. Favorecer modelos urbanos de movilidad sostenibles de personas y mercancías.

4. Lurraldean energiaren, uraren, hondakinen eta lurzoruen erabilera arduratsua bultzatzea.

5. Herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea bultzatzea, lurralde osoan.

6. Tokiko udalek eta erakundeek garapen jasagarriko ekintzak egiteko diru-laguntzen programa.

4. Potenciar un uso responsable de la energía, agua, residuos y suelos en el territorio.

5. Impulsar la sensibilización y participación ciudadana en todo el territorio.

6. Programa de subvención de acciones para el desarrollo sostenible a ayuntamientos y entidades locales.

## 5. Helburu Estrategikoa: INGURUMEN INTEGRAZIOA.

Ingurumen-integrazioa kontzeptuaren zeharkakotasunean oinarrituta ulertu behar da. Horrenbestez, politika publiko guztietan izan behar da kontuan ingurumen-arloa, edozein erabaki estrategiko hartu edo edozein plangintza indarrean jartzerakoan izan behar direlarik kontuan ingurumen-irizpideak, bai lurralde-antolamenduan, bai arlo ekonomikoan eta abarretan. Horrek Eusko Jaurlaritzako sail guztien, toki-administrazioen, foru-aldundien eta gizarte osoaren ahalegina eskatzen du askotariko beharrak orekatzeko ingurumenaren babesaren eta garapen ekonomiko jasagarriaren mesedetan.

Horretarako, honako ildo hauek jarriko dira martxan:

1. Ingurumeneko Esparru Programa 2020 proiektuan jasotako sei proiektu gakoak bultzatzea ingurumen-aldagaiaren sail arteko integrazio-tresna gisa (1. Ingurumen-arloan eredu den administrazioa. 2. Lurralde osasungarria. 3. Ingurumen-fiskalitatea. 4. Fabrikazio berdea. 5. Elikadura zirkularra. 6. Azpiegitura berdeak), horretarako sailen eta erakundeen arteko beharrezko koordinazioa sustatuz herritarrek bete beharreko funtsezko papera ahaztu gabe.

2. Ekintza publikoaren ingurumen-aztarna kuantifikatu eta minimizatzeko urratsak ematea maila guztietan.

3. EAEn ekonomia zirkularra eta erosketa publiko berdea sustatzera bideratutako jarduerak bultzatzea ingurumen-arloan eragiteko potentzialtasuna duten jardueretan. Horiek, gainera, inplikaturako administrazio guztietan bultzatu behar dira, bai prozesuaren plangintzarekin lotutakoetan bai plan eta proiektuen egikaritzearekin lotutakoetan.

4. Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazio eta izapidetze telematikoko sistema bat bultzatzea ingurumen arloko auziei modu eraginkor eta erasoan erantzun ahal izateko.

## Objetivo Estratégico 5: INTEGRACION AMBIENTAL.

La integración ambiental es entendida desde la perspectiva de la transversalidad del concepto, al objeto de informar todas las políticas públicas e incluir criterios ambientales en la toma de decisiones estratégicas o la planificación de cualquier índole (planificación territorial, económica, etc.). Esto requiere un esfuerzo por parte de todos los departamentos de Gobierno Vasco, administraciones locales y forales y la sociedad en su conjunto para equilibrar distintas necesidades que redunden en la protección al medio ambiente y en un desarrollo económico sostenible.

Mediante la realización de líneas de las siguientes acciones:

1. Impulsar los 6 Proyectos Clave del Programa Marco Ambiental 2020 (1. Administración ambientalmente ejemplar. 2. Territorio saludable. 3. Fiscalidad ambiental. 4. Fabricación verde. 5. Alimentación circular. 6. Infraestructuras verdes) como instrumento de integración interdepartamental de la variable ambiental, a través de la necesaria coordinación entre Departamentos e instituciones públicas, con el papel clave de la ciudadanía a este respecto.

2. Avanzar en la cuantificación y minimización de la huella ambiental de la acción pública a todos los niveles.

3. Potenciar actuaciones encaminadas al fomento de la economía circular en la CAPV y la compra pública verde en aquellas actuaciones con potencial incidencia ambiental, así como promover estas actuaciones en las distintas administraciones implicadas, ya sea en el proceso de planificación o en la ejecución de planes y proyectos.

4. Impulsar un sistema de comunicación y tramitación telemática administración-administrado que permita la resolución de temas ambientales de una forma cómoda y eficaz.

5. INGURUNET ingurumen-informazio eta -kudeaketarako sistema zehaztea, diseinatzea eta eraikitzea. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenari buruzko informazio alfanumeriko eta grafikoa edo edonolako jasoko da, kudeaketan, ikerketan, hedapen publikoan eta erabakiak hartzean erabiltzeko. Ingurumen Sailburuordetzaren nahiz finantzaketa publikoa duen bestelako edozein iturriren administrazio-izapideetan edukiko du jatorria informazio horrek.

6. EAEko gizarte osoan jasangarritasunerako hezkuntza eta kontzientziarioa bultzatzea.

Hezkuntza arloan, esparrua "2030erako EAEko Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategiak" ezartzen du, honako helburu hauek dituena:

1. helburua. Ekintzarako hezkuntza.

2. helburua. Hezitzaileen, prestatzaileen eta bestelako eraldaketa-eragileen gaitasuna indartzea.

3. helburua. Gazteak trebatzea eta ahalduntzea.

4. helburua. Herriak eta hiriak jasangarritasunerako ingurune hezitzaile gisa sustatzea.

Xede horiek estrategiako 2020rako lehen EKINTZA-PLANEKO jarduketa-ildoetan eta ekintza espezifikoetan zehazten dira, eta hura 2018ko ekitaldian ezartzen hasi zen, eta 2019. urtean zehar jarraituko du.

Honako hauek izango dira 2018/2019an abiarazi beharreko ekintza nagusiak:

1. Ingurugela-Berritzegune lantalde tekniko bat eratzea, ikastetxeak Jasangarritasunerako Hezkuntza garatzearekin lotuta koordinatzeko eta horiei aholkuak emateko, Heziberri 2020 Planean jasotako arau eta metodologia berrien arabera.

2. Jasangarritasunerako Hezkuntzari buruzko foro tekniko bat sortzea, hezkuntza formaleko eta ez formaleko ordezkari osatua, lan ildoak eta tresnak ezagutzeko eta partekatzeko eta hala horien arteko koordinazioa eta sinergiak bultzatzeko.

3. Hainbat hezkuntza-mailatako irakasleek kontzeptu eta formatu berriekin lotuta dituzten prestakuntza-beharrei buruzko ekintza planak egitea, Jasangarritasunerako Hezkuntzako eredu eraldatzaile bat martxan jartzeko (LH, unibertsitateak).

4. Jasangarritasunerako hezkuntza bizitza osorako ikaskuntzan barneratzea, garapen-agentzien eta esperientzia-ikasgelen bitartez.

5. Eskolako Agenda 2030en eta Tokiko Agenda 21en arteko koordinazioa bultzatzea, udala-ikastetxea koordinazio-egitura hobetuz.

5. Definición, diseño y construcción del sistema de información y gestión ambiental INGURUNET que integrará toda la información alfanumérica, gráfica o de cualquier otro tipo sobre el medio ambiente en la Comunidad Autónoma del País Vasco, procedente tanto de los trámites administrativos de la Viceconsejería de Medio Ambiente como de cualquier otra fuente con financiación pública, para ser utilizada en la gestión, la investigación, la difusión pública y la toma de decisiones.

6. Potenciar la educación y concienciación para la sostenibilidad en el conjunto de la sociedad vasca.

En relación a la educación, el marco lo establece la "Estrategia de Educación para la sostenibilidad 2030" de Euskadi que presenta como metas:

Meta 1. Educación para la acción.

Meta 2. Fortalecimiento de la capacidad de las personas educadoras, formadoras y otros agentes de cambio.

Meta 3. Capacitación y empoderamiento de la juventud.

Meta 4. Promoción de ciudades y pueblos como entornos educadores para la sostenibilidad.

Estas metas se concretan en líneas de actuación y acciones específicas en el primer PLAN DE ACCIÓN 2020 de la estrategia, que se inició su implementación en el ejercicio 2018 y continuarán a lo largo del 2019.

Para 2018/2019 las principales acciones a poner en marcha serán:

1. Constitución de un equipo de trabajo técnico Ingurugela-Berritzegune que coordine y asesore a los centros educativos en relación con el desarrollo de la Educación para la Sostenibilidad bajo los nuevos preceptos y metodologías recogidas en el Plan Heziberri 2020.

2. Creación de un Foro técnico de Educación para la Sostenibilidad, constituido por representantes de la educación formal y no formal con el objetivo de conocer y compartir líneas de trabajo y herramientas y fomentar así la coordinación y sinergia entre ellos.

3. Elaboración de planes de acción de las necesidades de formación sobre nuevos conceptos y formatos para el personal docente, de distintos niveles educativos, (FP, Universidades) para poner en práctica un modelo de Educación para la Sostenibilidad que sea transformador.

4. Integración de la educación para la sostenibilidad en el aprendizaje para toda la vida a través de las Agencias de Desarrollo y las Aulas de la Experiencia.

5. Impulso de la coordinación entre la Agenda 2030 Escolar y la Agenda Local 21 a través de la mejora de la estructura de coordinación Ayuntamiento-Centro Escolar.

6. Ingurumen-jasangarritasuna bultzatzea, Eskolako Agenda 21-Eskola Jasangarriak-Confint (Haur eta Gazteen Konferentzia) eta Aztertu (Azterkosta eta Ibaialde) programak berrituz, Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, Ingurugelen bidez. Aztertu+ estrategia berria garatzea aurreko zikloko emaitzen arabera egokituta.

7. Ingurumen-hobekuntzako jarduerak egiteko udalei, ikasteei eta boluntarioei zuzendutako diru-laguntza programak sustatzea.

8. Ekonomia berdearen kontzeptua garatzen laguntzea, bereziki Euskadirentzat interesgarriak diren ekimenak bultzatuz eta ingurumen-sektoreen eta Ingurumen Administrazioaren arteko lankidetzak publiko-privatua sendotuz, bi aldeek etekinak lor ditzaten Eusko Jaurlaritzaren estrategia orokorrarekin bat eginez.

9. Ingurumen-auzien gaineko jardunaldi, hitzaldi eta mintegiak egitea sektore inplikatuekin, berritasunak uler ditzaten eta behar bezala ezar ditzaten.

6. Impulso de la sostenibilidad medio ambiental mediante la renovación de los programas Agenda 21 Escolar-Escuelas Sostenibles-Confint (Conferencia Infante Juvenil) y Aztertu (Azterkosta e Ibaialde), en colaboración con el Departamento de Educación, a través de los Ingurugelas: diseño de la nueva (Agenda 2030 escolar) y desarrollo de la nueva estrategia Aztertu+ adaptada a los resultados del ciclo anterior.

7. Impulso a los programas de subvención para actividades de mejora del medio ambiente destinados tanto a Ayuntamientos como a centros educativos y al voluntariado.

8. Contribuir a desarrollar el concepto de economía verde, principalmente apoyando cuantas iniciativas sean de interés para Euskadi, reforzando la colaboración público-privada entre los sectores ambientales y la Administración Ambiental que permita obtener los máximos para ambas partes, en plena consonancia con la estrategia general del Gobierno.

9. Realización de jornadas, charlas o seminarios sobre cuestiones ambientales en concreto, con los sectores implicados, favoreciendo su comprensión y correcta implantación.

## 6. Helburu Estrategikoa: EUSKADIREN NAZIOARTEKO PROIEKZIOA ETA ERANTZUKIZUNA

EAE ingurumen-politiketan izaera berritzaile argia izan duen eskualdea izan da tradizionalki, gizartearen beharretara etengabe egokitzen jakin duena eta estatuan, Europan eta nazioartean hartutako ingurumen-konpromisoetan parte hartu izan duena.

Horrek ingurumenaren aldeko araudi eta teknologiko aurrerapenak ahalik eta denborarik laburren aplikatzeko aukera eman dio EAERI, baita ingurumen-politiken planifikazioa eta jarraipena modu eraginkorragoan gauzatzeko ere. Hori bai, nazioarteko gizarteak mugaz gaindiko ondorioak dituzten ingurumen-arloko erronka berriak ditu jada aurrez aurre, eta EAEk horiei aurre egiteko borrokan aktiboki parte hartu behar du.

## Objetivo Estratégico 6: PROYECCION Y RESPONSABILIDAD INTERNACIONAL DE EUSKADI

El País Vasco ha sido tradicionalmente una región con un marcado carácter innovador en política ambiental, adaptándose en continuo a las necesidades solicitadas por la sociedad así como por sumarse y participar en distintos compromisos ambientales a todos los niveles: estatal, europeo e internacional.

Esto ha supuesto una rápida aplicación de normas y adelantos tecnológicos en beneficio del medio ambiente, así como en la planificación y seguimiento de políticas ambientales que se han traducido en una protección ambiental más eficaz, si bien, la sociedad internacional se enfrenta a nuevos desafíos con efectos transfronterizos en los que País Vasco debe participar de una forma activa.



Horregatik, Ingurumen Sailak hainbat eskualde eta herrialderekin proaktiboki lan egiten du, berrikuntzako ezagutza sare bat eratzeko asmoz. Elkarlan horren xedea Euskadi ingurumen-babesaren arloan eta garapen ekonomiko jasangarrian puntako lurralde bihurtzea da, betiere EAEko gizartearen partaidetza bultzatuz, gure jarduketetan balio erantsi bat eskaini ahal izateko. Horregatik, sailak natura-ondareari buruzko nazioarteko eta estatuko foroetan parte hartzen du, hala nola Europarc-en eta UICN-n; UNESCOn, EUROMABen eta biosfera-erreserben sareetan, PLEn (KAPBren proiektuak eta Txinbadia+); ezagutza-sareetan (esaterako, GBIFen eta ORNITHOn); Garapen Jasangarriko Eskualdeetako Gobernuen Sarean (GJEGS); adibidez, Europako Eskualdeen Ingurumen Konferentzian (ENCORE); Jasangarritasunerako Tokiko Gobernuen Sarean (JTGS), The Climate Groupen eta beste nazioarteko-proiektu eta -ekimen batzuetan.

Honako hauek dira bultzatuko diren jarduera edo ekintzak-ildoak:

1. Administrazioen arteko elkarlana bultzatzea ingurumena elementu bereizgarri bezala sustatzeko EAEn nazioarteko proiektioan.
2. Natura-ondareari eta garapen jasangarri buruzko nazioarteko sareetan eta proiektuetan parte hartzea: EUROMAB, EUROPARC, CTP, GBIF, ORNITHO, etc.
3. Eskualdeko ikasketa interaktiboko Europako proiektuetan parte hartzea, hala nola BID-REX proiektuan. Proiektu horren xedea da biodibertsitateari buruzko informazioa eskuratzearen eta erabakiak hartzearen arteko aldea gutxitzeko erabilgarriak izan diren ikuspegiak, tresnak eta metodoak ematea.
4. Eragile publiko eta pribatuek egindako lana eta abian jarritako jarduerak babestea eta nazioartean zabaltzea.
5. EAEko Adierazpena maila lokalean zein nazioartean sustatzea Jasangarritasunaren Aldeko Tokiko Gobernuen Sarearekin (ICLEI) aliantza estrategikoa bultzatuz.
6. Ingurumen arloko mundu mailako foroetako parte-hartzea erraztea Euskadi nazioartean ezagutarazteko, EAEko herritarren eta enpresen interesak defendatzeko, eta mundu justu eta orekatuago bat eraikitzen laguntzeko. Horretarako, funtsezkoak dira Gobernu Erregionalen Sarea (nrg4SD), Europako Eskualdeen Ingurumen Konferentzia (ENCORE), Jasangarritasunaren Aldeko Tokiko Gobernuen Sarea (ICLEI) eta The Climate Group bezalako erakundeak.
7. Teknika erabilgarri onenen gaineko ondorioak biltzen dituen BREF txostena argitaratzeko lantaldeetan parte-hartzea Europa mailan, bereziki honako arlo hauetan: hondakinen kudeaketa, energiaren balorizazioa, ijezketa eta galvanizazioa.

Por lo expuesto, desde el Departamento de Medio Ambiente se colabora de forma proactiva con distintas regiones y países en la creación de una red de conocimiento innovador que permita situarse a País Vasco a la cabeza de territorios punteros en protección ambiental y desarrollo económico sostenible, haciendo partícipe a la sociedad vasca para poder caracterizarnos por aportar un valor añadido en nuestras actuaciones. Por ello, el Departamento participa en Foros Internacionales y estatales de Patrimonio Natural, como Europarc o UICN; UNESCO, EUROMAB y redes de Reservas de Biosfera, CTP (proyectos OPCC y Txinbadia+); redes de conocimiento como GBIF u ORNITHO, Red de Gobiernos Regionales por el Desarrollo Sostenible (nrg4SD), como en la Conferencia Medioambiental de las Regiones de Europa (ENCORE); la Red de Gobiernos Locales por la Sostenibilidad (ICLEI); The Climate Group y otros proyectos e iniciativas internacionales.

Mediante la realización de las siguientes acciones o líneas de actuación:

1. Colaboración institucional con otras administraciones para la promoción del medio ambiente como elemento diferenciador en la proyección internacional del País Vasco.
2. Participación internacional en redes y proyectos sobre el patrimonio natural y el desarrollo sostenible: EUROMAB, EUROPARC, CTP, GBIF, ORNITHO, etc.
3. Participación en proyectos europeos de aprendizaje interregional interactivo como el proyecto BID-REX, que tiene como objetivo facilitar el intercambio de enfoques, herramientas y métodos que han resultado ser útiles para salvar la distancia existente entre la disponibilidad de información sobre biodiversidad y las decisiones.
4. Apoyar y difundir la labor y actuaciones realizadas por el conjunto de agentes públicos y privados a nivel internacional.
5. Impulso de la Declaración Vasca a nivel local e internacional a través de una alianza estratégica con ICLEI.
6. Facilitar la participación en los foros globales sobre medio ambiente como vía para dar a conocer Euskadi en el mundo, defender los intereses de la ciudadanía y empresas vascas y contribuir a la construcción de un mundo más justo y equilibrado (a través de redes como ICLEI, Red de Gobiernos Locales por la Sostenibilidad, The Climate Group, la Conferencia Ambiental de Regiones de Europa o la Red de Gobiernos regionales por el Desarrollo Sostenible).
7. Participación en los grupos de trabajo para publicación de BREF a nivel europeo y en concreto: gestión de residuos, valorización energética y laminación y galvanizado.

8. Jasangarritasuna bultzatzeko eta jasangarritasunean hezteko programetan gure gazteen parte-hartzea sustatzea.

8. Promover la participación de nuestra juventud en programas para el impulso y educación en sostenibilidad.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>1. GURE INGURUNE NATURALA BABESTEA.</b></p> <p><b>1. Ekosistemak babestea eta leheneratzea.</b></p> <p>1. EAEko natura-ondarearen zaintzarako, jarraipenerako eta ebaluaziorako sistema, Natura 2000 Sarea barne.</p> <p>2. Basafauna eta basafloorari buruzko ezagutza hobetzeko azterlanak, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa eguneratzea, eta haien kontserbazioa hobetzea.</p> <p>3. Azpiegitura berde bat erabilera anitzeko eta lurraldearen eta hirigintzaren plangintzan interkonektatutako zonen sare gisa.</p> <p>4. Geodibertsitatearen EAEko Estrategiaren baitako ekintzak garatzea.</p> <p>5. Espezie exotiko inbaditzaileei buruzko azterlanak eta lanak. Horietan, natura-ondarean inpaktu handiena dakartenei lehentasuna emango zaie.</p> <p>6. Ekosistemak leheneratu eta hobetzeko proiektuak eta jarduketak sustatzea.</p> <p><b>2. Hegaztien eta Habitaten zuzentzarauak eraginkorki ezartzea.</b></p> <p>1. Natura-ondareari buruzko arau-proiektuak.</p> <p>2. Hegaztien eta Habitaten zuzentzarauak dakartzaten betebeharrak betetzeari buruzko txostenak ematea.</p> <p>3. Natura 2000 Sarea bultzatzeko azterlanak eta lanak. KBEak eta Hegaztientzako BBEak kontserbatzeko helburuen eta neurrien dokumentuak aplikatzea.</p> <p>4. Naturagune babestuen eta hezeguneen plangintzarako eta kudeaketarako tresnen koherentzia hobetzea, horiek bateratuz.</p> <p>5. EAEko Natura 2000 Sarearen Gida Plana egitea. Bertan, alderdi teknikoak, administratiboak eta gobernanzakoak jasoko dira.</p>	<p>1</p> <p>4</p> <p>1</p> <p>3</p> <p>5</p> <p>4</p> <p>2</p> <p>6</p> <p>5</p> <p>2</p> <p>1</p>	<p><b>1. PROTEGER NUESTRO MEDIO NATURAL</b></p> <p><b>1. Protección y restauración de los ecosistemas.</b></p> <p>1. Sistema de vigilancia, seguimiento y evaluación del Patrimonio Natural de la CAPV incluyendo la Red Natura 2000.</p> <p>2. Estudios para la mejora del conocimiento sobre la flora y fauna silvestres, actualización del Catálogo Vasco de Especies Amenazadas y mejora de su conservación.</p> <p>3. Diseño de una infraestructura verde como red de zonas multifuncionales e interconectadas en el marco de la planificación territorial y urbanística.</p> <p>4. Desarrollo de acciones incluidas en la Estrategia Vasca de Geodiversidad.</p> <p>5. Estudios y trabajos sobre especies exóticas invasoras, priorizando las que suponen un mayor impacto sobre el patrimonio natural.</p> <p>6. Fomento de proyectos y actuaciones de restauración y mejora de ecosistemas.</p> <p><b>2. Implementación efectiva de las Directivas Aves y Hábitats.</b></p> <p>1. Proyectos normativos sobre el patrimonio natural.</p> <p>2. Emisión de informes de cumplimiento de las obligaciones de las Directivas Aves y Hábitats.</p> <p>3. Estudios y trabajos para el impulso de la Red Natura 2000. Aplicación de los documentos de objetivos y medidas de conservación ZEC y ZEPA.</p> <p>4. Mejora de la coherencia de los instrumentos de planificación y gestión de los espacios naturales protegidos y humedales, unificando los mismos.</p> <p>5. Elaboración del Plan Director de la Red Natura 2000 en el País Vasco que incluya los aspectos técnicos, administrativos y de gobernanza.</p>



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
